

# Epikureismoa


Josemari Sarasola

Gizapedia



## Epikuro, eskolaren sortzailea

Epikuro Samoskoak (K.a 341- K.a. 270) Lorategia izeneko eskola filosofikoa sortu zuen Atenasen K.a 306 urtean, garai helenistiko betean. K.o. II. mendera arte iraun zuen hortik abiarazitako mugimendu filosofikoak. Horren jarraitzaileak *epikuroarrak* ziren.



## Helmuga, ataraxia

Garai helenistikoko eskola filosofikoak bezala (estoizismoa, ...), epikureismoaren xedea zoriona bilatzea zen. Koska zoriona zer den jakitea da. Epikurorentzat zoriona lortzeko bidea ziren

- ataraxia, asaldurarik gabeko bizitza, plazeretan eta desiren asebetetzean oinarriturik, baina plazerak zentzumenen gozamen neurrigabe moduan ez, baizik eta autokontrollean oinarritua; eta,
- aponia, min eta gorputzeko gaitzen eza.

## Epikureismoa, filosofia hedonista

Beraz, epikureismoa filosofia **hedonista** da, norberaren plazera bilatzen duena. Baina esan bezala, plazera modu berezian ulertzen zuen Epikurok. Plazera izateko, desiraren autokontrola eta neurria behar dira. Epikuroarrentzat desirak mina jatorri duela ere hartu behar da kontuan. Epikurok alperrikako desira eta plazer guztiak baztertzea aholkatzen du, eta desio bakartzat bizitza bera aukeratu behar da.

## Desira epikureismoan

Desira hiru sailetan banatzen ditu Epikurok: desira natural eta beharrezkoak (goserik ez pasatzea), desira natural eta ez beharrezkoak (sexua, janari goxoak) eta desira ez natural ez beharrezkoak (ospea, aberastasuna) bereizten ditu. Epikureismoan **desira natural eta beharrezkoak** onartu behar dira, neurrian, azkenean plazer lasai eta geldira eramango gaituztenak direlako.

## Fisika epikureismoan

Epikureismoaren fisika naturalista eta materialista da, eta helburu nagusia du: beldurra baztertzea. Beldurra inguruari diogu, kanpotik datorkigunari, eta epikuroarrek inguruari, naturari, beldurrik ez izateko irakasten digute. Bereziki, heriotzaren eta jainkoen beldurra baztertzea gomendatzen digute, mundu fisikoari buruz duten ikuspuntutik. Eta ikuspuntu hori Demokrito filosofo materialista eta atomistaren berdina da: mundua betierekoa da, eta atomoz eta hutsez dago osaturik.

## Tetrafarmakoa: lau botikak arima sendatu eta zoriona lortzeko

Epikureismoaren doktrina tetrafarmako izeneko erremedio laukotean laburbiltzen da:

- 1 **Ez izan jainkoen beldurrik.** Haiek ez dira gutaz kezkatzen.
- 2 **Ez kezkatu heriotzagatik.** Heriotzean ez gaude, bizirik gaudenean bakarrik gaude eta.
- 3 **Ona dena aise eskuratzen da.** Jateko eta edateko nahikoa izanda, zoriontsu izan gaitezke.
- 4 **Txarra aise pairatzen da.** Mina eta sufirmendua azkar pasatzen dira.

## Epikuroren lanak

Asko idatzi zuen arren, gutxi da gaurdaino iritsi zaiguna:

- *Menezeori gutuna*, etikaren gainean, zoriontsu izateko bidea erakutsiz.
- *Herodotori gutuna* eta *Pitoklesi gutuna*, naturaren eta fisikaren gainean.
- *Maxima nagusiak* eta *Prezeptoak*, Diogenes Laertiok bilduak.
- *Batikanoko esaerak*.
- *Naturaren gainean* laneko zati batzuk.



## Epikureismoaren oihartzuna

- Epikureismoak Antzinako Erroman izan zuen oihartzun handiena, eta Seneka eta Plutarko izan ziren horren ordezkari nagusiak.
- Lukrezio erromatar olerkariak *De rerum natura* izenburuko olerki ospetsua idatzi zuen, bere filosofian oinarrituta.
- Diogenes Laertzioren *Filosofoen bizitzak* lanean, leku zabala esakintzen zaio Epikuroren lanei.
- Karl Marx filosofka Epikuroren gainean idatzi zuen bere tesia.

## Epikuroren esaera batzuk

- Dena bukatu dela uste dezun unea iritsiko zaizu. Horixe bera izango da hasiera.
- Bildu zaitetz zure baitan, bereziki konpainia behar duzunean.
- Biharko egunetik gutxien behar duena da biharko egunera poz handienarekin doana.
- Aberatsa izan nahi duzu? Orduan, ez arduratu zure ondasunak gehitzen, zure kodizia gutxitzen baizik.
- Askorentzat aberats bilakatzea ez zen izan mixeriarekin amaitzea, mixeria batzuk beste batzuekin aldatzea baizik.